



15/18 Zirkularra

NAFARROAKO GOLF FEDERAZIOA

Paulino Caballero k., 13 – 2.a. 31002 – Iruñea
Tfnoa.: 948 210 132 - Fax: 948 222 198 – email: fngolf@navarragolf.com

2018ko Nafarroako Kirol Jokoetako Pitch & Putt

1.- NAFARROAKO KIROL JOKOETAKO (NKJ) PITCH & PUT.

Mezu honen bidez, Nafarroako Golf Federazioak 2018ko Nafarroako Kirol Jokoetako Pitch & Putt-eko deialdia eta bere araudiak helarazi nahi ditu.

Jokalekua:

LIZASO GOLFEKO PITCH AND PUTT ZENTROA

San Simón, 31799 – LIZASO (Nafarroa)

Tfnoa.: 619700456 -E-mail: info@lizasogolf.com

2.- NKJetako Pitch & Putt lehiaketarako balioko duten probak

Datak:

Ekainak 20

Ekainak 21

Ekainak 22

Irteeren ordutegiak egun batzuk lehenago agirataruko dira. Seguraski, lehenak 10:00etatik izango dira.

Kategoriak:

Haurrak (13-14 urte)

Kimuak (11-12 urte)

Benjaminak (9-10 urte)

Aurre-benjaminak (7-8 urte)

Lehiaketa irekia denez, *Handicap* Nazionala duten jokalariek parte hartu ahalko dute, baita Nazionala Ez Den *Handicap* dutenek ere.

3.- INSKRIPZIOAK / JOKU MODALITATEA /

Inskripzioak: Autobusez egingo diren joan-etorriak modu egokian antolatzeari begira, inskripzioak Nafarroako Golf Federazioari komunikatu beharko zaizkio telefonoz (948 210 132) edo posta elektronikaren bitartez (fngolf@fnavarragolf.com). Izena emateko epea ekainaren 15ean amaituko da edozein jardunalditan parte hartzeko.

Jokalari bakoitzaren Inskripzio-Eskubideak:

Jokalari bakoitzak 7 € ordaindu beharko du Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzeagatik (ordainketa bakarra). Jokalariak bere klubean ordainduko du (Zelai Handiko modalitatean parte hartu dutenek, ez dute kuota ordaindu beharko).

Garraioa: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak haur kategoriako NKJetako P&P ligako jokalarien joan-etorria erraztuko du. Modu honetan, nahi izanez gero, inskripzioa egiterakoan jokalariak adierazi beharko du zerbitzua erabili nahi duela eta garraioa erabiltzera konprometituko da bai joaterakoan, bai itzultzerakoan. Izena emateko epea bukatu eta gero, bilguneak eta ibilbidea zehaztuko dira inskripzioen arabera.

Irteera barrak: Derrigorrez, irteera egin beharko da alfonbra txikietatik eta *tees* erabili ahalko dira.

Joku modalitatea: *Stableford* kategoria guztietan.

Haur eta kimu kategorietan 18 zulo lehiatuko dira. Benjamin eta aurre-benjamin kategorietan, 9 zulo lehiatuko dira.

Sailkapenak: Banakako sailkapena.

Puntuazio sistema: Banakako sailkapena zehazteko, kategoria bakoitzeko ranking-a osatuko da proba bakoitzean lortutako puntuak batzen. Proba bakoitzeko puntuazio sistema honako hau izango da:

- 1. sailkatua: 10 puntu
- 2. sailkatua: 8 puntu
- 3. sailkatua: 6 puntu
- 4. sailkatua: 5 puntu
- 5. sailkatua: 4 puntu
- 6. sailkatua: 3 puntu

- 7. sailkatua: 2 puntu
- 8. sailkatua: Puntu bat

Berdinketa izanez gero, Espainiako Errege Federazioko Liburu Berdinak agintzen duen moduan konponduko da.

Probako Batzordea arduratuko da sailkapenak osatzeaz eta Nafarroako Golf Federazioari jakinarazteaz.

Gizonezkoen eta emakumezkoen kategoria bakoitzeko txapeldunek dominak izango dituzte, baldin eta 4 lehiakidek edo gehiagok parte hartu izan badute.

Lehiaketaren azken eguna amaitu eta gero, berdinketa izanez gero, Probako Batzordeak erabakiko du nola konponduko den.

Sari banaketa: Ekainaren 22ean, azken proba lehiatu eta gero, sari banaketa ospatuko da.

4.- ARGIBIDEAK

Caddie-ak: Haur eta kimu kategorietako jokalariek ezingo dute Caddi-rik eramán. Benjaminen eta Aurre-benjaminen kasuetan, bai laguntzaileak, bai markatzaileak, baimenduta daude (eta gomendatzen dira). Betiere, markatzen duten multzoko jokalarien senitartekoak ez badira.

Otamena: Ekainaren 21ean, lehiaketaren azken proba bukatu ondoren, parte-hartzaileek otamenaz gozatu ahalko dute klubeko instalazioetan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

José Manuel Vicente
Idazkaria